

NAZIO-ARTEKO UNEA

KENYA-REN ASKATASUNA

Azkenengo bi urte aurretan ainteste nazio berri sortu diran edo obeto esateko ezagutu ditugun Africa'tik berri pozgarri bat datorrigu: estadu berri bat datorkigu bere buruaren jabe izatera iritxita, Kenya. Gure benetako dan pozarekin onartzen degu estadu berri au.

Badakit orain dala amar urte «mau-mau» dalako goraberak izandu zirana bertan eta astakeri aundiak egin zituztela. Baita ere badakit sortu diran estadu berri oietako batzuetan orain aretaranoiko bizitza oso santua izan ez dana. Baita ere badakit emendik aurrera Kenya'n ez bear bat baño geigo gerta ditekena. Ala ere uste oso-oso daukat ori ez dala arrazoi, gauza oiek gertatu dirala edo gertatu ditezkeela ta zuriak, europearrak aien jabe ta zuzendari izateko. Eta ori arrazoi baldin bada ez degu gizonen arteko igualtasunean sinisten. Eta mesedez, paternalismo guztiak alde batera utzi ditzagun, gauzko gizonari paternalismoak bañan nazka aundiagoa ematen dion gauziki ez da ta.

Nola ta noiztik nora gu, europearrak, beltzak baño oheak? Noiztik nora kristauagoak, santuagoak?

Gure istoria ahaztu egin ote zaigu? Guk egin ditugunak ahaztu?

Afrika'ko erriak, gaxotegiak, bi-deak eta makinak baño lenago euren nortasuna ezagutzea eskatzen digute. Itsuak ez gaitzean izan eta gizon bezela benetako demokrata bezela jokatzeko ikasi dezagun.

Ez dakit bañan, Europa kristautasunarekin gelegi batu nai dutenak etzazkit gogozko. Ez det esaten Europa kristautasunez egiña ez dagonik istoriaren barruan, bañan ala ere ez nuke beñiere esango kristautasuna ta europeartasuna berdiñ diradenik. Batez ere nola alabaiteko europeartasuna. Gañera, parregarria da, kristautasuna ta europeartasuna elkartuak azaldu nai dira Europa defenditu bear danean, bañan ez bestaldera gertatzen. Egia esan, onek asko pentsatu erazi dit.

Izan dezatela bada Kenya'ko jendeak bizimodu on bat jalo dan estadu berri orren barruan. Bere nortasuna, bear dan eran erabilli dezatela. Ta Kenya'ko agintariak jakin dezatela Kenya'n barruan

ARREGI'tar RIKARDO'k

Zertara dator Fran-
tzia'ko ezkerrea?

Paris'tik Jacqueline Basset'ek

Illabete batzuek badira ezkerrek berriro bere burruka gogoa arkitu duala, eta bere oposizioa azaltzen duala. Partidu bakoitzeko billeretan erabakitzen diranak, URSS'n izan ezkerro Guy Bollet'ek erabakitako komunistenganako joerak, Senatuak ukatutakoak eta ordezko lendarakitzaren gañean esan diranak bizkortze ori ondoen adierazten dute. Bañan bizkortze onek zer esan nai du? Ezkerrek itzezin besterik ez duala egiten, edo ta bear bezelako politika bat erabakitzeko gai dala?

Lenen partiduen eginbearra egunetik egunera gutxitza datorrela dirudilla esan dezagun. Lengo partiduak, komunistak partidua —jende jakiñarekin kontatzen duan partidua bañan dogmatismo batean itxita dagoan partidua— alde batera utxita, gero ta gero sozio gutxigo daukate eta soziak zahartzen ari zaizkie. Orregatik ez da arritzeko partidu oiek dinamismoa galtzea. P. S. U. (Sozialista partidu batua)'ri dagokionez, berri-tzearen partidu nai izan zuan partidu oni dagokionez, oso desberdiñ aundiko jendeak bereganatu ditualako eziñ du batasunik arkitu bere barruan eta orregatik ez da ekiteko gai.

Zer gertatzen da? Demokrasiaren okerra ote da ba, eskubiak dion bezela? Frantzesak politika uzten ote dijoaz partiduetatik alde egiñaz? Ori ez da segurua, erritar askoek politika ekiteari jarraitzekotan partiduetatik beste nunbai-

ten ari dira. Ikusi bitez ortarako klub politiko eta orrelakoen ugaritzea (Club Jean Moulin, cercle Tocqueville, Rencontres, Citoyens 60, Democratie Nouvelle etab...), ekonomi ta gizarte prolema gañean argitaratutakoak eta sindikatoen ekitntza.

Lana, naiz eta batasunik gabe eta nola ala egiña izan, benetakoa da. Ala ere Klub eta sindikatoak partiduen zeregiña eziñ dezateke bete, orregatik auker zer diran kontu artu bear dute: programa zaharretan giltzapetuak, oraingo prolema partean ez dakizkite, bere estutasunaren eta pasatoko itzen burrukarekin eziñ dezateke sortzen ari dan 48 milloiko Frantzi ta 170 milloiko «Europa»'ko munduar-jasotzean parte artu.

Bada ordua ezkerrentzat degauzeletasunaren kontrako politika errezegia dala konturatzeko, gizon baten kontra partiduak elkartzea naikoa ez dala, bai-zik eta elkartasun ori al dan luzeena izateko programa eginkor bat prestatzea bearrezkoa dala konturatzeko. Gurea bezelako gizarte, gobernua erabaki ez dituan ekonomi prolema artean, oposizioak prolema oiei erabakiak arkitu bear die, partiduak klub eta sindikatoak elkarizketan bildu, bearrezkoen diran ekonomi prolema ezagutu ta eriritarrak bere ginkizunetarako edukatu, zer egin bear duten jakin dezaten. Ez ote da au ezkerria itzaletik ateratzeko biderik egokiena?

MUNDUAN
ESATEN DANA

TIMES (Londres'koa):

Bruxelles'ko artu-emanak

«Gefenetan, Bruxelles'ko eragozpenak, nekazari gaitan alemanak eman nai ez dituztenetatik sortuak dirala esaten da. Au Ikusmira estu bat besterik ez da, elkarren arteko uste-eza geiago dalako».

LA NATION (Paris'koa):


Europa'ren etorkizuna

«Europa oraindik egin diteketa, eta suari olibo boteaz ez da ori lortuko. Bañan ori nola egingo da bakoitzak emandako itzrekin nai duana egiten baldin badu? Eta nola egiñ diteketa Ipar-ameriketakin aduana tratuak nekazaritzari dagozkionak erabaki bañan lenago erabakiaz?».

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

Euskal irratsoiak

BASERRIAREN ALDE



Banen baneko aziyak.

Ongarri ta abonokak

Belar Zuloak.

Torreavega'ko Perira joan etorriak.

Baserri, lur-tresnak ta abar.

Erosi edo berritzeko diru aurrotzetza.

Televisores «Vanguard» A G N I
Central de Materiales Eléctricos
Probintziako komertzio on guzietan salgai